

Kataluniako Adierazpena

Eskualde indartsuak Europa indartsurako

(2005eko urriaren 24 eta 25eko osoko bilkurarako proiektua)

Europar Batasuneko aginte legegileak dituzten eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak, Bartzelonan urriaren 24 eta 25ean bildutakoek, honako adierazpena onartu dute, adostasunean oinarrituta:

Ekonomia eta Diru Batasuna lortzeak nahiz Batasunaren errealitatea 25 estatu kidetara hedatzeak Europar Batasuna bere historiako beste fase batean sartzea ahalbidetu dute, bakea, garapen ekonomiko, sozial eta iraunkorra eta lankidetzaz ezaugarri izan dituen hamarkadetako bateratzearen ondoren.

Europa berri hori eraikitzeko, ezinbestekoa izan da estatu kideetako gobernuen eta Batasuneko erakunde guztien babesa eta lana. Europaren batasuna pixkanaka iritsi da herritarrengana eta bestelako erakundeetara, batez ere 1979tik aurrera Europako Legebiltzarra zuzeneko sufragio unibertsalez hautatzeari esker eta eskualdeen batzordea sortzea ondorio izan duen eskualde-politika sortzeari esker. Demokratizazio-prozesu horrek etengabe jarraitu du aurrera, eta hedatuz joan dira, pixkanaka, Europako Legebiltzarraren aginteak. Eskualdeetako Batzordea ere sendotu egin da eta legebiltzar nazionalak ere esku hartzen hasi dira pixkanaka, geldo bada ere.

Hala eta guztiz ere, ahalegin horiek guztiak ez dira nahikoak, diru bakarraren garaian eta Batasuna 450 milioi biztanlerengana hedatu den honetan. Konstituzio-itunak bertako estatuen eta herritarren batasun gisa definitzen du Europar batasuna eta zeregin nabarmena egozten dio subsidiarotasunaren kontrolari, eskualdeetako legebiltzarren parte hartzea izan dezakeenari. Haatik, Europar Batasunak ezin du estatuen batasun bakarrik izan. Batasunaren osaketak herritarrak hartu behar ditu barne, horiek direlako Europaren batasun-prozesuaren egiazko euskarri.

Miresteakoak diren arren, egonkortu eta areagotu egin behar dira defizit demokratikoa murrizteko eta Batasuna indartzeko egindako ahaleginak, hainbat eraberritzeren bidez hasitakoak (Maastricht-etik Europako Konbentziora, konstituzio-ituna ahaztu gabe). Eraikitzen ari garen Europa berriaren ondorio ekonomiko, sozial eta politikoen emaitza gisa, gero eta parte-hartze handiagoa eskatzen da, eta horri erantzun egin behar diogu. Gaur egun erabakiak hartzeko prozesu europarrean erabat hartu behar dira barne eskualdeetako eta tokiko erakundeak, horiek berma dezaketelako ondoen prozesu honetan herritarrekiko hurbiltasuna.

Guztiok hartu behar dugu parte Europar Batasunean: tokiko erakundeek, eskualdeek eta horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak, erakunde sozial, politiko eta kulturek, lurralde-erakundeak eta herritarrek, Europako esparru politikoan eta bertako erakunde ireki eta partekatuetan aske, zuzenean eta inolako eragozpen edo errezelarik gabe jarduteko aukera izan behar dutenek.

Zehatzago esateko, lehendakarien ustez, Europako erakundeek bestelako espirituarekin heldu behar diote berriz ere beren xedeari, bateratzeko eragile gisa duten xedeari. Ikuspegi irekia izan behar dute horretarako, eta entzuteko gogoia, sistema ireki eta parte-hartzaile berria eraikitzearen bidetik.

Bide horretatik, Batasunak aginte legegilea duten eskualdeak eta horietako legebiltzarrak aitortzeko eskatzen dute aginte legegileak dituzten eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak: erakunde gisa eta zuzenbidearen nahiz politikaren mailan aitortzeko, aldi berean Batasuneko legeria osatzeko eta hori aplikatu eta kontrolatzeko prozesuan parte hartzeko eskubidea ere aitortuz.

Lehendakariak gogoratu dute subsidiarotasun-printzipioak demokratizazio-prozesuan eta Batasuneko bizitzan parte hartzeko prozesuan duen funtsezko zeregina, indarrean dauden itunek argi jasotzen dutena, eta hori aplikatzeko borondatea berretsi dute. Europar

Batasunak bere egiazko zereginei buruzko hausnarketa egin behar du. Subsidiariorotasun-printzipioa aplikatzera mugatu behar luke eta nazioko, eskualdeko edo tokiko esparruan behar bezala gauza ez daitekeena arautu behar luke, Batasunaren eskumenak estatu kideen eta horietako eskualdeen eskumenak kaltetzeko moduan interpretatzea saihestuz. Hortaz, subsidiariorotasun-printzipioa era kontsekuentean aplikatuz, ezinbestekoa da Europar Batasunaren eta estatu kideen zereginen banaketa berriz antolatzea.

Gaur egungo egoeran, funtsezko zeregina dute eskualdeek eta horietako legebiltzarrek: herritarrengandik eta horien arazoetatik hurbil daudenez, eskualdeetako legebiltzarrak ezin hobeak dira europar izateko arrazoi on ugariak ikusarazteko eta ulertarazteko, eta horretarako gaitasuna dute, gainera. Espiritu europarra ere susta dezakete eta bateratzeko prozesuan sakon dezakete, eskualdeen arteko lankidetzaren bidez.

Europarako konstituzioa ezarriko duen itunaren patua edozein dela ere, EELBk benetan uste du egindako bidean ez dela atzera egin behar, Europar Batasuna batasun politikoko egiazko esparru izatea ahalbidetuko duen hainbat mailatako erakunde-arkitektura lortu nahian. Esparru horretan subjektu aktibo izango dira eskumen legegilea duten eskualdeek eta beren idiosinkrasia propioa aitortzen dutela ikusiko dute.

Hori kontuan izanik, eskumen legegileak dituzten eskualdeetako legebiltzarrek subsidiariorotasun-printzipioaren kontrolean parte hartzea ahalbidetuko duten prozedurak ezartzeko beharrezko diren neurriak hartzeko eskatu diete lehendakariak Europako Batzordeari eta gainerako erakundeei. Hori bat dator konstituzio-itunak ezarritako subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak aplikatzeko protokoloan aurreikusitakoarekin.

Horretarako, elkarrekin ez ezik, Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin ere lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dute. Horien artean leku berezia izango dute Batasunera atxiki berriek, subsidiariorotasunerako

bidea egin beharko baitute, erakunde-testuinguru desberdinen baitan.

Azkenik, lehendakarien ustez, globalizazioaren eta Europa berriaren garaian, are nahitaezkoagoa da eskualdetzeko eta deszentralizatzeko prozesua indartzea. Xede hori aintzat hartuta, konpromisoa hartu dute hainbat eskualde-esperientzian laguntzeko eta horien berri izatea ahalbidetzeko, arreta berezia eskainiz batzuek besteen sistema juridikoak ulertzeari. Beren esperientzia jarriko dute besteren eskura, lankidetzako ekintzei heltzen laguntzeko helburuarekin.

Aginte legegileak dituzten legebiltzarreko lehendakariak prest daude Europako erakundeekin eta organoekin batera egiteko ahalegina, batez ere Europako Legebiltzarrarekin, Batzordearekin, Eskualdeetako Batzordearekin eta EGEOBekin, estatu kideetako legebiltzarrekin eta gobernuekin, Europako gainerako eskualdeekin, tokiko erakundeekin, erakunde kultural, ekonomiko eta sozialekin eta herritar guztiekin, Europar Batasuna egonkortzeko eta demokratizatzeko helburuarekin.

ERANSKINA

Eskualdeetako legebiltzarrek subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak kontrolatzeko sisteman parte hartzeko proposamenak

Subsidiarotasuna indartzea, eskualde-demokrazia garatzea

1. Europar Batasunak barne-esparruan estatuetako eta eskualdeetako legegileentzat gordetakoak izan diren eskumenak hartu ditu bere gain. Alabaina, Europaren esparruan orain arte gobernuek erabakietan eragin erabakitzailea izan badute ere, estatuetako eta eskualdeetako legebiltzarrek ez dute inolako kontrol eraginkorrik izan beraiengan eragiten duen Europako legeriaren gainean. Konstituzio-oreka hauste horrek gardentasunik eza ekarri du berekin, baita herritarrak erabakietatik urruntzea ere. Horrek defizit demokratikoa deiturikoa ahalbidetu du Europar Batasunean.

2. Subsidiarotasun-printzipioak erkidegoen eratze-itunetatik bertatik izan du bere tokia Europaren batasun-prozesuan, eta erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin hartzen direla bermatzea du helburu. Haatik, printzipio hori Batasuna eraberritzeko prozesuaren inguruko eztabaidaren gunetako bat izatera iritsi zen, askoren ustez ez baitzen eraginkorra izan subsidiarotasun-printzipioaren aplikazioa.

Maastricht-eko Itunaz geroztik, subsidiarotasun-printzipioak gero eta toki garrantzitsuagoa izan du Europar Batasunaren erakunde-eraberritzeari buruzko eztabaidan. Bide horretatik iritsi ginen 2004ko konstituzio-itunera. Horrek eman zien bide lehen aldiz estatuetako eta eskualdeetako legebiltzarrei, Europako prozesu legegilearen hasierako fasean parte hartzeko.

3. Batasunaren lege-proposamenen aurretiko kontrol politikoa egiteko mekanismoa (alerta goiztiarreko sistema) proposatu zuen

Konbentzioak, estatu kideetako legebiltzarrek beren gain hartuko zutena, egintza legegileak onartu ondorengo kontrol juridikzionalaren bidez. Horrezaz gain, subsidiaritasun-printzipioa aplikatzeak esan nahi du eskualdeen maila kontuan izan behar dela eta, oinarri horretatik abiatuta, Batzordeak egin nahi dituen proposamenei buruzko kontsulta zabalak egin behar ditu, indarrean dagoen itunari eta ondorengo araei jarraiki. Kontsulta horien artean dira aginte legegilea duten eskualdeei egin beharrekoak, proposamenei horietan dutenean eragina.

4. Estatu bakoitzaren baitan landuko da alerta goiztiarreko kontsulta hori zein kasutan, zein prozeduraren arabera eta zein eraginekin egingo den, bertako konstituzio-arauen arabera¹. Haatik, badira esparru honetan hartu beharreko erabakiak bideratzeko irizpide orokorrak, honela laburbil ditzakegunak:

- a) Hitzartzeko prozedura eta metodoa legebiltzar nazionalaren eta eskualdeetako legebiltzarren artean adostu behar dira.
- b) Hitzartzeko prozedura legebiltzar nazionalekin egin beharko da egintza legegilearen proposamena eskualde-eskumenen ingurukoa denean edo eskualdeei betebeharren bat ezartzen dienean.
- c) Kontsultak aukera eman behar die eskualdeetako legebiltzarrei beren jarrera osatzeko eta hori estatuko legebiltzarrean adierazi ahal izateko.
- d) Eskualdeetako legebiltzarren jarrera kontuan izan beharko du estatuko legebiltzarrek bere irizpena prestatzeko garaian, eta horrek erabakitzailea izan beharko du proposamen legegilearen

¹ Belgikan, legebiltzar nazionalak eta eskualdeetakoak eskubide berberak dituzte subsidiaritasun-printzipioari dagokionez. Hortaz, adierazpen honetan proposatutako printzipioa gutxienezkoa da Belgikako eskualdeetako legebiltzarretarako.

gaineko barne-eskumena eskualdeei bakarrik dagokiona bada.

5. Europar erabakiak hartzeko prozesuetan eskualdeetako legebiltzarrek parte-hartze eraginkorra izatea lortzeko, ezinbestekoa da oinarritzko bi baldintza hauek betetzea aldi berean:

a) Informazioa egoki helarazi behar da, ahal dela zuzenean, Europako erakunde bidez, eta lehenbailehen, esku hartzea ahalbidetzeko helburuarekin.

b) Eskualdeetako legebiltzarrek barne-egituratze egokia izan behar dute eta, batez ere, dagozkien eskualdeetako gobernuekin harremanak izateko mekanismo egokiak izan behar dituzte.

Subsidiarotasun-printzipioa behin betiko aplikatzeak Europar Batasunaren legitimotasun demokratikoa indartzen lagunduko du, eskualdeetako legebiltzarrek Europako aginte legegilean parte-hartzea ekarriko baitu berekin, herritarrengandik hurbilen dauden erakunde izaki.